## Landaredi lagungarriaren onurak

Duela gutxira arte, baratzeetan soilik barazkiak aurkitzen genituen, baina gero eta ohikoagoa da lore mota desberdinak landatzea gure baratzean. Hau ez da moda kontu bat; lore hauek alderdi askotan laguntzen baitute:

- Gure baratzeko bioaniztasuna handitzen dute fauna lagungarria erakarriz.
- Gure barazkien polinizazioan laguntzen dute erleak, liztorrak etab. erakartzen baitituzte.
- Krema, ukendu eta gure baratzerako landare aterakinak egiteko baliagarriak dira.
- - Zenbait lore jangarriak dira edo sukaldean erabil daitezke.
- Gure baratzea haize zakarretatik babesten dute.
- Beraien haziak txorientzako elikagai garrantzitsua dira.
- Neguan beraien zurtoinpean intsektu ugari babesten dira.
- Gure baratzeari beste ukitu bat, koloretsua, ematen diote.

Hori dela eta, gure baratzeko gune bat hainbat landare lagungarri landatzeko gordeko dugu. Horretarako, honako jarraibide hauek kontuan izango ditugu:

- Landare bizikorrak dira garrantzitsuenak ez baititugu urtero landatu behar. Hori bai, kasu honetan, ertzetan landatuko ditugu hurrengo urtean traba izan baitaitezke.
- Hibridazio txikiko landareak dira interesgarrienak lore-hosto ugari izaten dituztelako eta ez dutelako hainbeste polenik izaten.
- Udaberri-udan ez ezik, sasoi desberdinetan loratuko diren landareak ere jarriko ditugu.
- Tronpeta itxura duten loreak oso nahigarriak dira lagungarrientzat.

## Beneficios de las plantas auxiliares

Hasta hace muy poco, en las huertas sólo podíamos encontrar hortalizas, pero cada vez es más habitual plantar distintos tipos de flores en nuestra huerta. Esto no es cuestión de moda, sino que esas flores nos ayudan en muchos aspectos:

- Aumentan la biodiversidad de nuestra huerta, atrayendo a la fauna auxiliar
- Ayudan en la polinización de nuestras hortalizas, ya que atraen a abejas, avispas…
- Nos sirven para realizar cremas, ungüentos, extractos de plantas para nuestra huerta…
- Algunas de las flores se pueden comer o se pueden utilizar para cocinar
- Nos protegen la huerta de vientos fuertes
- Sus semillas son un alimento importante para pájaros
- En invierno, muchos insectos se protegen entre sus tallos
- Dan a nuestra huerta otro toque de color

Es por ello que conviene que por lo menos una zona de nuestra huerta la reservemos para plantar diferentes plantas auxiliares. Para ello, tendremos en consideración algunas pautas:

- Las plantas vivaces son las más interesantes, ya que no tendremos que estar plantándolos todos los años. Eso sí, en este caso, las plantaremos en las esquinas ya que el próximo año nos pueden estorbar
- Las plantas poco hibridadas son las más interesantes, porque éstas suelen tener muchos pétalos y no tanto polen.
- Intentaremos poner plantas que florezcan en distintas épocas, no sólo en primavera-verano.
- Las flores con forma de trompeta son muy apetecibles para las auxiliares